

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maria Teresa Ureta Jaio

*Ea, Bizkaia
(1924)*

Aurkibidea



Biografia



1924. urteko San Antonio egunean jaio zen Goiko bidea kalean eta San Juan eliza aurrean dagoen etxean eta hori izan da beti bere bizilekua. 10 neba-arrebatatik bera eta bere bikia izan ziren azken aurrekoak. Ama lbarrangelukoa zen eta gazte hil zenez ez zuen ezagutu. Aita Zeanurikoa bazen ere, oso pertsona ezaguna bihurtu zen herriko "kotxeroa" izateagatik. 6 urterekin Eako eskolan sartu eta 14 urterekin irten zen. Erdaraz ikasi behar izan zuela-eta, oso txarto pasarazi zioten eskolan. Neskame lanetan ibili izan da betidanik eta horrerri esker taberna eta etxe propioa eskuratu ahal izan zituen. 22 urterekin Gernikako iturgin batekin ezkondu zen eta alaba bat izan zuen. Bere [ahizpa bikia](#)rekin egin genion elkarriketa.

Argazkian eskumako aldean dagoena da.

Zintak

EAA-011

- **Proiektua:** Eako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aranburu Agirre, Judith - Gonzalez, Andere
- **Data:** 2012-07-19
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Josten eta bordatzen

- **Erref:** EAA-011/008
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:12:44. **Bukatu:** 00:14:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Teresak Maria Agustina Gonzalorekin ikasi zuen bordatzen, hamalau urte ingururekin. Maria Antoniak asko josi izan du makinaz, enkarguak egiteko. Arropak estreinatzen ziren San Juan egunez eta ordurako eskaerak izaten zituen.

2. San Juanetako sua eta lore sortak

- **Erref:** EAA-011/010
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:16:12. **Bukatu:** 00:17:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

San Juanetan su handia pizten zuten herrian. Dantzan egiten zuten eta kalejira ere izaten zen. Jende asko batzen omen zen. San Juan loreekin sortatxo bat ipintzen zuten atean.

3. Kontzezio eguneko ospakizunak

- **Erref:** EAA-011/012
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:17:43. **Bukatu:** 00:18:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Abenduaren 8a jaia izaten da Ean, betidanik ezagutu dute. Txistulariak, meza nagusia eta galiziarren banda izaten ziren egitarauan.

4. Gabonetako kantua

- **Erref:** EAA-011/021
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:32:49. **Bukatu:** 00:33:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

Laburpena:

<p>Gabonetako kantua.</p>

5. Aita zalgurdiarekin Gernikara joan-etorrian

- **Erref:** EAA-011/023
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:39:03. **Bukatu:** 00:39:59

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

Aitak zalgurdian eramaten zituen lanera herritarrek Gernikara eta ondoren bueltan ekarri ere bai.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com